

Prentsa oharra

Nota de prensa



Txominenean 109 BOE etxebizitza eraikitzeke baimena onartuta

Beste erabaki batzuk: 2020-2024 Euskara Plan Orokorra eta galtzadan konponketak,

Tokiko Gobernu Batzordeak Bizkide S.COOP-i baimena eman dio Antzieta Pasealekuan 109 BOE etxebizitza eraikitzeko. Txominenea auzoan garatzen gelditzen diren Eusko Jaurlaritzaren bi lur-sailetako bat da.

Donostiako alkate Eneko Goiak adierazi du, etxebizitza arloan Txomineneako ingurua amaitzeko gelditzen den azkenetako jarduketa dela. Gogoan izan, duela gutxi Etxegintzak sustatutako babestutako etxebizitzetako esleipendunei giltzak eman zaizkiela eta, ondorioz, auzoko biztanle kopurua asko hazi da.

Eusko Jaurlaritzak sustatutako etxebizitzak dira, hain zuzen ere, erabilera lagapeneko etxebizitzak. Hortaz, etxebizitza arloan Txomineneako lehen fasearekin amaitzeko, eraikitzeko bakarrik geldituko lirateke Eusko Jaurlaritzak sustatutako azalera-eskubidea duten etxebizitzak.

Donostiako Euskara Plan Orokorra 2020-2024

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Donostiako Euskara Plan Orokorra 2020-2024. Eta plana diseinatu da, modu parte hartzaile, planifikatu, integral eta iraunkorrean. Gainera, plan honetan, Donostiako Udalaren nahia ez ezik, Donostiako eragileena, auzoetako batzordeetako kideena, Euskararen Kontseilu Sektorialeko kideena eta prozesuan parte hartu duten norbanakoena ere jasotzen da.

Galtzada konponketak

Tokiko Gobernu Batzordeak Excavaciones y Transportes ORSA enpresari esleitu dio Agiti, Marabieta eta Arritxulo bideetako galtzadetan konponketa lanak egiteko kontratua. Lan hauek hiru astez luzatuko dira eta 56.694 euroko kostua izango dute.

Gizarte Ekintza

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du, "Gizarte-hezkuntza arloan eta arloko psikosozialaren arreta zerbitzua" kontratatzeko espedientea. Zerbitzu hau Babesgabetasun egoeran dauden adingabeen arloan esku-hartzeko programen barruan dago. Bertan lan egiten duten profesionalek arlo sozioedukatiboan edota psikosozialean laguntza ematen diete familiei, gatazkak bideratzeko, babesgabezia egoerak saihesteko, ohitura eta jokabide kaltegarriak ordeztzeko eta bizikidetzeta eta gizarteratzea erraztuko duten gaitasunak eskuratzeko.

Kontratuaren aurrekontua 1,4 milioi eurokoa da, eta hiru urteko luzapena izango du, eta urteko bi luzapen izateko aukera du.